

Eibarko Udalak Scratch-eko ikastaroa antolatu du teknologia berrien munduan murgiltzeko ondo pasatzen dugun bitartean. Software hau erabili hala matematika eta konputagailuekiko ideia garrantzitsuak ikasten dira.

Tramitatzailerak: Euskara-Kultura

Hartzaileak: lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako haurrentzat.

Taldeak: 2 talde.

(Ordutegia matrikula orrian aukeratu)

Ikastaroaren prezioa: 10€ (Eibarren erroldatuak)
20€ (Eibartik kanpokoak)

Ikastaroaren ordainketa: matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta

Nork emango du: UEU Eibar

Non eta noiz: Haur Liburutegia. Portalea.

Datak: Martxoak 2, 9 eta 16

16:00etatik 17:30etara ; 17:30etatik 19:00etara.

Ikasle kopurua: gutxienez 8 ikasle, eta gehienez 16 ikasle

Ikastaroaren hizkuntza: euskeraz.

Eskaera egiteko tokia:

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Eskaera egiteko epea:

2013ko otsailaren 18tik 26ra (biak barne)

Aurkeztu beharreko agiriak:

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.net, eskuragarri).

Aitaren, amaren edo tutorearen **NANaren** edo balio bereko dokumenturen baten kopia.

NAN dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.net), **2013ko otsailaren 27an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **2013ko otsailaren 27an 14:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio. Bi zerrenda egongo dira, ordutegi bakoitzeko bat. Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zerrenda bakoitzeko zenbaki bakar bat ateratzen da. Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horren jarraian dauden zenbakiak dituztenak izango dira ikastarorako aukeratuak plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egongo da **2013ko otsailaren 28tik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak: Talde batean matrikularako izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldean izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldearen ikasle-kopuruz osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz.

Informazio gehiago: 943 708 437